


Euskal AEko I+Gko gastua %8,6 handitu da 2002an

Gastu hori BPGarekiko (%1,50) Espainiako batez bestekoaren gainetik dago (2001. urtean, %0,96), eta Europar Batasuna-15ekoaren azpitik (%1,93).

2002. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan, guztira, 672 milioi euro inbertitu ziren ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko (I+G) jardueretan, aurreko urtean baino %8,6 gehiago, Eustatek landu dituen datuen arabera.

Azken hamar urtean, ia hirukoiztu egin da ikerketa-lanetan egindako esfortzua

1. grafikoa: I+G-KO BARNE GASTUAK



Iturria: EUSTAT

Gastu horrek BPGaren %1,50 hartzen du, eta, beraz, estatuko batez bestekoaren gainetik dago (2000. urtean %0,96), baina Europar Batasuneko batez bestekoaren azpitik (%1,93). Hazkunde hori BPGak uneko preziotan izandakoa (%4,6) baino handiagoa izan da eta ondorioz, gastuaren intentsitatea sei ehunen igo da, aurreko urtearen aldean.

Egiaztatzen da erlazio positiboa dagoela biztanleko BPGaren eta I+Gra bideratutako BPGaren ehunekoaren artean. Herrialde aberatsenak egiten dute I+Gko inbertsiorik handiena, hau da, euren BPGaren %2,5 gaingitzen dutenak: Suediak, Japoniak, Finlandiak eta AEBek. Bitarteko ahalegina, hots, BPGaren %1,5en eta %2,5en artekoa

egiten dutenen artean, Alemania, Frantzia, Danimarka, Erresuma Batua, Norvegia, Austria eta Kanada daude. Inbertsio baxuak, azkenik, Irlandan (%1,17), Italian (%1,07), Espainian (%0,96), Hungarian (%0,95), Portugalen (%0,78) eta Polonian (%0,67) gertatzen dira.

Autonomia-erkidegoka, Euskal AEk bigarren tokian jarraitzen du I+Gko ahaleginaren rankingean, eta Madrilgo Erkidegoa baino ez dago aurretik (2001. urtean, %1,75eko gastua BPGaren aldean), I+Gan diharduten zentro publiko asko han biltzen direlako. Horiek horrela, ezin autonomia-erkidegok ez du gainditzen Europar Batasuna-15eko batez bestekoa.

Euskal AEn egindako I+Gko gastuaren %79 enpresa-sektorean egikaritzen da.

Egikaritze-sektoreei dagokienez, enpresek I+Gko gastuaren %79 kontsumitu zuten; %18 unibertsitate-ikerketara bideratu zen, eta gainerako %3 Administrazioaren mendeko zenbait organismo publikoetara. Arlo horretan ere diferentzial handia dago Espainiar Estatuko emaitzen aldean: 2001. urtean, enpresek I+Gko gastuaren %52 besterik ez zuten egikaritu, herri-administrazioak %16, goi-mailako irakaskuntzak %31 eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak gainerako %1.

Gastu handiena burutzen duen eta langile-kopuru handiena erabiltzen duen zientzia-diziplina ingeniariak eta teknologia da, diziplina horretara bideratzen baitira baliabideen %77 eta han lan egiten baitute I+Gn diharduten langileen %75ek.

Industria-enpresei dagokienez, aipatzekoak dira garrantzi handieneko produktu ikertu gisa, makineria eta tresneria mekanikoa, eta aireontzi eta espazio-ontzien eraikuntza. Bi sektoreen artean, enpresek I+Gko bideratzen dituzten gastu arrunt guztien %25 (2001. urtearekiko %-2) kontsumitzen dute.

Zerbitzu-enpresen aldetik, telekomunikazioak, softwarea eta I+Gko zerbitzuak dira baliabide gehien jasotzen duten produktuak, eta guztien artean I+Gko bideratutako gastu arrunten %26ra (2001. urtearekiko %+9) iristen dira.

Finantzaketaren ikuspegitik, finantzaketa pribatuak, enpresen bidez, 434 milioi euro bideratu zituen ikerketara, guztizkoaren %64,5; eta ehuneko puntu eta erdi murriztu du bere ekarpena, aurreko urtearen aldean. Finantzaketa publikoak %27,1 iritsi zuen. Funtsen %8,3 atzerrian atzeman ziren eta ekarpena gehien gehitu duen sektorea izan zen, 2001ean %7koa izan baitzen eta 2000an %3koa. Euskal AE finantzaketa pribatu handieneko herrialdeen artean kokatzen da, AEB eta Alemaniaren mailan.

Euskal AEn I+Gko jardueretan diharduen guztizko langile-kopurua 11.165 lagunera (%+5,1, 2001. urtearen aldean) iritsi da, biztanleria landunaren milako 11,40; eta kopuru horretatik, 6.295 ikertzaileak dira, milako 6,43.

1. taula: I+G-KO ADIERAZLEAK

	Euskal AE		ESPAINIA	EUOPAR BATASUNA-15
	2002	2001	2001	2001
I+G GASTUAK (%)				
BPGarekiko (*)	1,50	1,44	0,96	1,93
I+G GASTUAK (%) FINAN- TZAKETAREN ARABERA				
ENpresaK	64,5	66,1	47,2	56,2
Administrazioa	27,1	26,5	39,9	34,5
Bestelako iturriak	0,1	0,1	5,3	1,5
Atzerria	8,3	7,3	7,6	7,8
I+Gra DEDIKATUTAKO DOEko PERTSONALA(**)				
Pertsonala guztira	11.165	10.619	125.750	1.779.074
Ikertzaileak	6.295	5.807	80.081	971.497

(*) BPG-2000 oinarriko datuekin zuzendutako seriea Euskal AEn

(**) DOE: dedikazio osoko ekibalentzia

Iturria: Euskal AE: EUSTAT- Espainia: INE- Europar Batasuna: EUROSTAT

Euskal AEn egindako ikerketaren beste adierazle batzuk patenteak eta erabilgarritasun-modeloak dira.

Argitaratutako patenteen eskaera-kopurua 216ra iritsi zen 2002an; horietatik 137 estatu-bulegoan aurkeztutakoak, 34 Europa bidez eta 45 PCT bidez (nazioartekoa). Eskatutako patenteen kopuruagatik nabarmendu egiten dira etxeko tresnak, eraikinak eta eraikinentzako osagarriak (sarriak eta kutxa gotorrak) eta garraioak eta enbalajeak.

Sortutako erabilgarritasun-modeloak 155 izan dira eta horietan ere nabarmendu egiten dira etxeko tresnak, garraioak eta enbalajeak eta eraikinak eta eraikinentzako osagarriak, baina kasu honetan, ateak eta leihoak.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Susana Rabuñal Mol

Tlf:+34-945-01 75 48 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es